

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2005eko ekainaren 17a /187. zenbakia

- **HERRIKO KONTUAK Gure Etxeak 25 urte** 05
- **KIROLA Rebeka Carrera** 09
- **AIAKO BERRI Eskola eguna** 10

- **IRITZIA Leandro Azkue** 16
- **HERRITARRA Alberto Loidi** 21
- **GEHIGARRIA ERDIAN Festa programa**



Teknopolis saioaz Aitziber Agirrerekin

Hirugarren urtea bete du Aitziberrek ETBko Teknopoliserako lanean. Programaz eta Oriori buruz daukan ikuspegiaritu gara berarekin.

Lizaso
Utziarik

Luzko Gaser, 26. Tfnoa: 943 83 07 81
Alto Lertxundi, 5. Tfnoa: 943 13 31 01

APAINDU ETA ZAIINDU ZURE ETXEA

Pinturak
ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Aberdaria Industrialdea
943 83 06 45 / 810 60 23 35
ZARAUTZ

AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK

CCI
CATANIA, ELIVITA, SACOTTI Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 63 59 00

olariaga **aholkularitza, s. l.**

aholkularitza fiskala eta laborala
enpresa eta partikularentzat

ASEGURUAK

BEREZITASUNA: enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.

Baxoalde, 4 beheh T., 943 83 37 20 / Fax.: 943 83 52 98
e-mail: olariaga@olariaga.com

PERTSIANAK

A
K
O

M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 329 01 Muzikama 600 70 52 27

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria tel: 943 89 40 29
finka administratzailea faxa: 943 83 54 98
gestoria itsasadarra@itsasadarra.com

Ibai Ondo, 4 beheh ORIO

tel/fax: 943 89 00 69
Araba kalea, 25 • 20 000 ZARAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

teho, isoratzaileak

LEIHOLAN

0290

ERAKUSKETAK

Fabrika Erribera, 2 AIZARNAZABAL
Geltoki, 25 LASARTE 943 37 72 64
Aita Lertxundi, 21 ORIO 943 89 49 36

P.V.D ALUMINIOA H.P.P.

protegia
MIRANDA
Iba N. Larrañe

Orina, ate, leiho, eskalera... behar diren beste lanak egiteko dabilazagu

Araketa bidea, 1 • 460 42 32 70 • ZARAUTZ

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 beheh-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-mail: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

LERTXUNDI
Altzariak - Dekoerazioa

Jave M^o Genoba
DIZAINLAGIA

Fusko Gudari, 1E, 20810 ORIO - Tel./Fax: 943 13 09 99

ACTIVA **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Fusko Gudari, 1E - Tel./Fax: 943 13 11 49
20810 ORIO

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@topagunea.com

Editorea

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Patxi Uranga

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe, Pat Cowie, Olatz Elustondo, Miren Etxeberria, Jakes Goikoetxea, Ana Iturain, Jaione Manterola, Eneritz Odriozola, Ainara Peña eta Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa

Eli Lasa eta Nerea Zuloaga

Publizitatea

Jaione Manterola

Publizitatearen diseinua

Eduarne Irigoien

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Iñaki Iturain, Leandro Azkue
eta Ixidro Lertxundi**Argazkien digitalizazioa**

Ana G. de Txabarri

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakEva Aierza (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 2.890 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Udara on eta iraila arte!

IÑAKI ITURAIN

Ni, KARKARA, sartu naiz
botila batean
eta gogoz murgildu
itsaso betean,
ur epel ta barean
arrainen artean
pozik ibiliko naiz
orain erbestean.

Zahartzen hasia naiz
hamasei urtekin
eta hainbeste festa
ezin det atsegin.
Agur san Juan, Laurentzi
Pedro eta Fermin,
nik atsedean ta zuek
herria kontu egin.

Giroa aldatzeko
det kriston gogoan,
herria utzi eta
bidaiatzeko.
Balea zaharrakin
antxoan bila noa,
hortako hautatu det
Karibe beroa.

Gogoan irailean
etorri beharra,
berriz igaroko det
Orioko barra.
Zuentzat bihotzean
desio bakarra:
ondo izan, aiarra
eta oriotarra.

**LAGUNTZAILEAK**Orioko
UdalaAiako
UdalaEusko
JauriaritzaGipuzkoako
Foru Diputazioa**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	10,00 €
Bi modulu	20,00 €
Hiru modulu	30,00 €
Lau modulu	40,00 €
Sei modulu	60,00 €
Zortzi modulu	80,00 €
Orrialde erdia	100,00 €
Orrialde osoa	170,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	13,00 €
Bi modulu	26,00 €
Hiru modulu	39,00 €
Lau modulu	53,00 €
Sei modulu	79,00 €
Zortzi modulu	106,00 €
Orrialde erdia	145,00 €
Orrialde osoa	255,00 €

Publizitatea kontratatzeko, hitz egin Jaione Manterolarekin
(KARKARAN edo 600 711 288)
Prezio hauei BEZa gehituko zaie.

Erantzun beharra

Ez dugu Aiako Laia plataformakoekin eztabaidan aritu nahi; baina iruditu zaigu aurreko KARKARAN atal honetan argitaratu zuten gutunak gure erantzuna merezi zuela.

1.- Laia plataformakoekin Udalarekin duten (edo ez duten) harremanen berri ez dugu orain arte egoki islatu aldizkarian. Egia da hori. 185. zenbakian Aiako alkateari egindako elkarrizketan ere egoki izango zen horri buruzko galdera egitea eta ez genuen egin. Garbi dago, askotan, ez ditugula gauzak nahi bezain ondo egiten.

2.- Laia plataformari aukera eman diogu, zenbaki honetan bertan, Aiako Udalarekin dituen harremanei buruz eta Udalaren jardunari buruz nahi dituenak adierazteko, iritzia-ri dagokion orrialdean. Aurre-rago egitea nahiago zuela erantzun digu eta errespetatzen digu hori. Gerora ere izango dute aukera hori.

3.- Ez ditugu Laiakoak inozotzat hartzen, eta are gutxiago hartzen ditugu inozotzat Laiari azken udal hauteskundeetan botoa eman zioten aiarrak. Horiek, jakina, gure errespetu osoa merezi dute eta, orain arte bezala, lagun nahi ditugu aurrerantzean ere.

4.- KARKARAK urte luzetako ibilbidea du atzean. Hasiera batean, ezker abertzalearekin lerratuegi ibiltzea leporatzen ziguten askok. Orain, berriz, EAJren zerbitzari ikusten gaituzte batzuek. Taldean ez gara ados jartzen: batzuen-tzat, gure arteko optimismentzat, seinale ona da hori, ezin garbiago adierazten duela gure ildoaren independentea dela eta ez garela ez batzuen-nera eta ez besteenera limurtzen; aldizkariko beste batzuek, ordea, esaten dute horrek adierazten duen bakarra dela ez dugula inorekin asmatzen. Mundu petrala!

5.- Egia da ez genuela ezker abertzaleko herri plataformen iragarkirik jarri azken udal hauteskundetan, baina guk

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (Kultur Etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

bezala jokatu zuten Garak, Egunerok (itxi berria zen Egunkaria) eta herri aldizkari gehienek ere: koldar, Laiakoen ustez; zuhur, gure iritziz. Gainera, alde aurretik zuzenean aitortu genizkien Laiakoei genituen arrazoiak eta adierazi genien, bidegabeke hura salatzeke, hutsik joango zirela aldizkarian berentzat gordetako orriak, izkina batean adierazpen askatasunaren ikurra zeramatela. Horrela egin genuen, guk ordainduta dena. Kontatzen hasita, hobe guztia esatea.

6.- Zilegi da, jakina, KARKARAK egiten duena kritikatzea, eta zinez estimatu ohi ditugu kritika zintzoak; baina politikan dabilenak jakin beharko luke hitzak hobeto neurtzen, inori alferrik minik egin gabe. KARKARAK kazetari onak lortzeko omen dituen zailtasunei buruzko aipamena eta diru laguntzak galtzeko omen dugun beldurrarena min egiteko asmoarekin idatzita zeuden eta min egin digute.

KARKARA TALDEA

Kutxa eta euskara

Aurtengo errenta aitortpena egiteko, Kutxako zerbitzuak baliatu naiz. Zerbitzua eman zidan pertsonak ez zekien euskaraz eta, beraz, erdaraz egin behar izan nituen harekikoak. Ez daukat ezer haren kontra (bera ondo egin zuen eta traturako atsegina zen), bai-

na tristeia da Kutxak ez izatea begirune gehiago euskararekiko. Bertan agertu nuen nire kexa eta egoki iruditu zait KARKARAN ere azaltzea, ea kon-tuan hartzen duten.

ITZIAR OLARIAGA

Demokrazia?

Lasai, gustukoa, eztabaidarik gabea, iluna, bazter-nazkatailerik gabea... Auskalo zer irudituko zaizuen udaleko egungo osaketa. Nahi duzuen adjektiboa etorriko zaizue, baina demokratikoa ez, mesede! Izan ere, ez da oriotarrok orain bi urte aukeratutakoa. Talai Herri Plataformako Alazne eta Iñakik ez dute zegokien kargua hartu. Inor gogoratzen al da zergatik ilegalizatu zituzten Bata-suna, herri plataformak eta beste hainbat? Hotzean pentsatuz gero (zaila, ezta?), zilegi iruditzen al zaizu *demokrazia eta bakea*-ren izenean, ilegalizazioa? Gukuste genuen demokrazia herritarrei erabakitzeko ahalmena ematen dion tresna politikoa zela. Gogoratzen al duzue Ajuria-eneko ituna indarrean zela demokraten eta ez-demokraten artean egiten zen bereizketa? Gaur egun ez dago demokratik, ez behintzat egoera antidemokratiko honek dirauen bitartean. Baina berdin dio, ezta? Orain hamar urte ez-demokratik zirenak, oraingo ilegalizatuak, sistematik kanpora daude.

Hori da Franco hil zenetik bilatu izan dena. Baina zertan ibili gara, orduan, azken 25 urtetan? Itxura egiten? Hemendik bi urtera, hauteskundeak egin beharrean, alkateari eskatuko diogu lagun koadrila bat aukera dezala Udala osatzeko, edo, hobe bestela, garai batean bezala, agintea herriko mediku eta apaizarekin konpartitzen badu. Guk herriaren hitza errespetatu dadin borrokan jarraituko dugu. Hori bai, zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango zaigu!

TALAI HERRI PLATAFORMA

Gutun gehiago 18. orrialdean



Aste berdea 2005

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko eguna izan da. Horren inguruan Udaltalde 21ek 2005eko Aste Berdea ospatu du. Programaren barnean, Hondakinei buruzko tailer ibiltariak egin dira Udaltalde 21 Urola Kostako herri guztietan eta ekitaldi hori izan da, hain zuzen ere, aurtengo Aste Berdeko programaren oinarritzko jarduerak.

Aia udalerriguztien aintzindaria izan zen, han egin zelako lehenengo tailerra. Gaztetxo batzuk jostailu birziklagarriak eta apainagarriak egitera hurbildu ziren. Lokotz jokoan ere aritu ziren, baina lokotzak jaso beharrean hondakinak jasotzen zituzten eta zegozkien edukiontzietara bota behar zituzten.

Orion igandean izan zen; goizez eta arratsaldean egin ziren tailerrak eta arratsaldekoan parte hartu zuten gazte gehien. Guztietan informazio puntua jarri zen hondakinei buruzko berri emateko, eta inkesta betetzen zuten artean zozketa egin zen.

ELKARTEKO LAGUNEN ESKUTIK EMANGO ZAIE HASIERA AURTENGO SANPEDROEI

Danborra joaz ospatuko ditu Gure Etxea elkarteak 25 urte

Sortu zenetik emakumeak bazkide onartu zituen soziedade honek 25 urte betetzen ditu aurtengoan. Gure Etxea elkarteak emango diete hasiera aurtengo sanpedroei eta, ondoren, Baleakoekin aterako dira danborradan.

Danborraradako entseguetan buru-belarri lanean dabilta Gure Etxea elkarteak lagunak: 25. urteurrena ospatzen dute aurten. Hori dela eta, beren ardura izango da festen hasierako txupinazioa botatzea. Ondoren, beste 25 urte bete-tzeaz den Baleako lagunekin batera, danborra joaz arituko dira herrian barrena.

Data berezia izanik, zerbait antolatzekotan ziren Gure Etxeakoak, Udaletik txupinazioa botatzeko gonbitea egin zieten. *Urtero bazkideen afaria egiten dugu eta aurten, berriz, biak elkartu ditugu. Beraz, ederki afaldu ondoren, plazara joango gara, itxafuegoa bota eta, ondoren, danborra jotzera. Eta gero, gero-koak... bakoitzak ikusiko du festa noiz arte luzatu, esan digu Mikel Iruretagoiena elkarteak presidentea.*

80 SOZIO FUNDATZAILE

Soziedadeaz gain, biltzeko tokia ere izatea zuten helburu orain 25 urte Txokolate-eneako eskailaretan Euzko Etxea elkarteak sortu zutenek. EAJri lotua, bi pisuko lokala hartu zuten hasiera batean: goikoa, bilera gela eta bideo emanaldietarako areto modura erabiltzen zutena eta behekoa, elkarte funtzioa betetzen zuena. 80 bazkidek osatua, Luis Ondozabal izan zen bertako lehen presidentea. Handik lau urtera, batzarrak bide propioa egitea erabaki eta soziedade soil izatera pasa



Kalerik kale danborra joaz aritzeko, entseguetan dabilta egunotan.

KARKARA

ziren, eta, Euzko Etxearen ordeztu, Gure Etxea izena hartu zuen. Bazkide kopuru berdina mantentzen dute gaur egun ere eta ohorezkoak, 65 urtetik gorakoak, alegia, beste hainbeste dira.

EMAKUMEAK ERE BAZKIDE
Gainontzeko elkarte gehienetan ez bezala, Gure Etxean

Elkartean dagoen fundatzaileen zerrendak garbi erakusten du gizon-emakumeak pareko izan direla hasieratik Gure Etxean

hasiera-hasieratik pareko izan dira beti gizon-emakumeak, pareta batean zintzilik dagoen sozio fundatzaileen zerrenda koadroak ongi erakusten duen moduan. Presidenteak berak azaldu digunez, sorreratik sexu bereizketarik egin ez izanak, gai honen inguruan beste elkarte askotan sortu den polemikarik ez iza-

Festen hasieran, elkartean afaldu ondoren, plazara joango gara, itxafuegoa bota eta, ondoren, Baleakoekin danborra jotzera

tea ekarri du eta, alde horretatik, gustura egoteko moduan daudela dio.

Izan ere, garaiak asko aldatu omen dira eta lehen koadrilarekin afaritarara joateko gizon giroko txokoak zirenak, egun, familia giroko bazkari eta ospakizunetarako erabiltzen dira batik bat.

Bizimodu aldaketa horren adibide omen da, baita ere, aurten izandako mus txapelketa. Orain urte batzuk baino jende gutxiago animatu da jokatzera eta, gainera, izena eman duten gehienak elkartean hasieratik dauden sozioak izan dira. Garai hartan urte osorako sagardoa ekartzeko elkartu egiten ziren eta almatzeneko kontuak sozioek egiten zituzten. Sozioen inplikazioa ez da, gaur egun, horren handia.

KARELA ATZEKO ALDEAN ERAIKIKO DUTE KIROL EREMUA

Futbol eta sofbol zelai berriak erakitzen hasi dira

Orain arte autoak aparkatzeko erabili den lekua eta soroak hartuko ditu kirol eremu berriak. Urte bete iraungo omen dute lanek.

Futbola ezezik bertan jokatuko dituzte Sofbol eta Liga 7 txapelketetako partidak ere. Horregatik futbol zelai berria ohikoak baino handiagoa izango da eta 105 metro luze eta 66 metro zabal hartuko du guztira. Belarra, berriz, artifiziala jarriko diote.

Horretaz gain, 330 ikuslerentzako lekua duen erdi estalitako grada ere izango du. Azpian, berriz, lau aldagela, arbitroentzako gela, taldeen bulegoak edota makina gelak eraikiko dituzte. Jokalekuaz aparte, itxitako 300 aparkaleku inguru ere egingo dituzte, gerora saltzeko. Garaje horiek zelaiaren azpian eraikiko dituzte.

Orain arte bertan zegoen aparkaleku publikoa nora eramaz aztertzen ari da Udala. Galdera eginda, zenbait aukera aztertzen ari direla esan digu Eneko Olariaga zinegotziak. *Zetorrena jakinda, saiatu ginen aparkalekua beste nonbait jartzen, zegoena kendu aurretik, baina ezin izan dugu, buruan genuen aukerak kale egin digulako. Beste batzuk begiratzen ari gara, orain. Borondatea eta asmoa baditugu; baina, oraingoz, ezin dugu ezer aurreratu.*

Lanak urtebete luzatuko direla uste dute, eta, beraz, bai



Kamioien joan etorria etengabea da kiroldegiaren atzeko aldean.

KARKARA

**105 metro luze,
66 metro zabal eta
330 ikuslerentzako
lekua duen
estalitako grada
izango ditu
zelai berriak**

futbol taldeak eta bai sofbolekoek bertan egingo dute 2006-07 denboraldia.

BABESTUTAKO ETXEA

Udaleko gaiekin jarraituz, ekainaren 23an jakingo da Azkue etxeetako Babes Ofizialekoak nork erosi ahal izango dituen. Epearen barruan eskaera egin zuten 272 lagunetatik 43k ezezkoa jaso dute. Orain, 16 etxebizitzak zozketatuko dituzte onartutako enzerrendan osatzen duten 229 herritarren artean. Zozketa Udaletxeko areto nagusian egingo da, notarioaren aurrean eta jende aurrean, 19:00etan hasita.

LABUR

IKASTOLA Basaurira

Ikastolako Lehen Hezikuntzako laugarren eta seigarren mailako ikasleek Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketan parte hartuko dute, ekainaren 18an, Basaurin. Laugarren mailakoek lehen postua lortu zuten Gipuzkoako Txapelketan.

MUSIKA Imanol Urkizu PIR 2005ean

Imanol Urkizuk panderoari buruzko tailerra eman du aurtengo PIR 2005eko (Piriniotako Musika eta Kultura jaialdia) programaren barruan. Jaialdi entzutetsuak bederatzigarrena du aurtengoa, eta uztailearen 1etik 3ra egingo da Aragoiko Ansó herrian.

GAZTERIA Beka deialdia

Udalak beka baten deialdia zabalduko du laster, gazteen beharren azterketa soziologikoa egiteko eta ondorengo ekintzak proposatzeko. Udalak, beka horren bidez, herriko gazteen beharrak identifikatu nahi ditu, alor horretan egin beharreko lana erabakitzeko. Beka deialdia berehala egingo du Udalak eta parte hartu nahi dutenek kiroldegirako behar dute informazio eske. Bekadunak urte amaiera arteko epea izango du, lana bukatzeko.

BEREZI
moda eta osagarnak

edozein tokian BEREZI sentitzeko arropa

Arrantzale kalea, 3
Tel: 943 89 05 29

• Lois • Caroché • Guess? • Pepe Arellano • Jackpot • Diesel • Cotton Field

hartz-klinika

MOZES-HIRIARI eta SOULIER

- odontologia orokorra
- periodontia (paraguru gabe)
- endodontia
- implantologia (zubetako berritasunak, implanteak jarri eta zuzteko, nahiz hartz guberoak)
- ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- protesiak
- hartz-estetika (zuzeneko estetika gabe)

Maria Etxeziki kalea, 1 behe ZARAUTZ 943 13 02 78

JENDE HELDUAREN ARTEAN JAITSI DA GEHIEN EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen erabilera %5,7 jaitsi da azken lau urteetan

Bi urtean behin egiten den euskararen erabilerearen kale neurketak nahikoa datu kezagarriak utzi ditu agerian: zaharrenek izan ezik besteok euskaraz gutxiago egiten dugula, esaterako.

Bi urtean behin egiten du Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabilerearen kale neurketa. Maiatzaren erdi aldera bi lagun aritzen dira, kalez kale jendeak zein hizkuntzatan hitz egiten duen jasotzen. Adinaren arabera lau sailetan banatuta, ordu eta egun zehatzetan biltzen dituzte datuak, bukatutakoan aurreko urteetako emaitzeekin alderatu ahal izateko. 1989an egin zen lehenengo aldiz; hasieran, urtero egiten zen eta, 1999tik hona, bi urte-tik behin.

JAITSIERA

Aurtengo emaitzen laburpena hau da (datuak portzentajetan emanda eta sexuaren aldagaia kontuan hartu gabe):



Haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak: % 86,6, aurtengo neurketaren arabera.

KARKARA

Haurrak (0-14), % 86,64
Gazteak (15-24), % 81,08
Helduak (25-64), %58,03
Zaharrak (65-), %77,20
Guztira, % 68,29
1989tik 2001era erabilera

datuek gora egin zuten urtez urte, batez ere haur eta gazteen adin taldeetan; baina azken bi neurketetan badirudi kontrako joera hartu duela erabilera indizeak. Jabier

Zabaleta euskara teknikariak esan digunez, *Poliki aztertu beharreko datuak dira aurtengoak. Kezagarria da, batez ere, helduen indizeak erakusten duen beheranzko joera.*

HERRI IKASTOLA
Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari kalea, 13-15
41010
943 83 38 75

Zarautz
AUTOESKOLA

zarautz 943 83 38 52
orio 943 83 57 19

**erraztasun gehiago orain
36 hilabete ordaintzeko**

WERTECIA
PATXI OLIDEN
PASTICERIA

Hemengo haragia.
Etxeko produktuek: tripa, odaki,
bekarra, txarizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



Espainiako Txapelketa irabazteaz gain, Gipuzkoakoa eta Euskadikoa ere irabazi dituzte.

KARKARA

2003AN ESPAINIAKOA ETA 2004AN EUSKADIKOA BAKARRIK GALDU DITUZTE

Espainiako Txapelketa irabazi du zortzikoak

Autoetako bozinek etengabe joaz sartu ziren zortzikoko arraunlariak herrira. 2001ean irabazitako bandera zuten esku artean, aurtengoa itsusiegia omen zen herritarrei erakusteko-eta.

Jendetza bildu zen plazan txapelduneharrera egiteko. Banderastindu ostean, Jon Salsamendi herritarrei zuzendu zitzaientzen, eta gauean Manu Maritxalarren *Tostartean* programan ere gauza bera erre-

pikatu zuen entrenatzaileak: *Arraunlariak banan-banan aztertuta, aspaldiko zortzikorik apalena zen aurtengoa, baina emaitzak egunerokolana saritu digu. Zera gaineratu zuen: Herritarrek bezala arraunlariak ere Kontxari begira gaude dagoeneko, baina traineru denboraldia luzea izaten da eta pazientzia behar dugu.*

Bi segundo atera zizkion Orioko zortzikoak Vigoko Nauticori, eta ia bost hondarribitarrei.

TKE LIGAKO ZERRENDA

Zortzikoak lehian zen bitartean gainontzeko arraunlariak azken ergometro testak egin zituzten klubean. Hauekizango dira trainerua osatuko duten arraunlariak: Gaztañazpi, Sarasua, Etxeberria, Iriondo, Millares, Bereziartua, Peña, Gastiain, Larrinaga, Arostegi, Endika, Agirregomezkorta, Dorronsoro, Colina, Lasarte, Salsamendi, Etxeberria, Etxebeste eta Diez. Lehen estropada Elantxoben jokatu dute.

LABUR

ARETO FUTBOLA

Galiziara doaz

Espainiako Txapelketa jokatzeko ari dira autonomia kategorian txapela lortu duen Orioko tabernak taldea. Galizian jokatu dute azken fasea, datorren asteburuan. Larunbatean bi partida jokatu dituzte eta, aurreko biak irabaziz gero, igandean finala.

ERREMONTA

Azpeitiako Txapelketa

Uztailaren lehen egunean jokatu da Azpeitiako Txapelketaren finala eta bertan Borja Agirresarobe oriotarraizango da. Jon Etxeberria azpeitiarra du bikotekide eta orain arte jokatu dute lau partidak irabazi dituzte.

FRONTENIS

Finalerdiak

Amaiera gertu du frontenis Txapelketak ere. Datorren ostiralean jokatu dira bi finalerdiak eta uztailaren lehen egunean izango dira finalak, San Pedro festetan, ostiralarekin.

FUTBOLA

Denboraldi amaiera

Larunbatean egingo dute Orioko FTkoek denboraldi amaierako bazkaria. Preferentekoek mailari eutsi diote azkenean, baina jubenilek promozioa galdu dute Lasarteko Ostadar taldearen aurka.

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskaerarako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gallur: Señorío de Laurgain
Gallur eta Ardandegi,
Arabar Errixoko ardoak.

Eusko Guda, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bo@errasti@euskalnet.net

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L

TRONKAK - BAIULAK



Sanjago auzoa - 18 postakua
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA



Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

REBEKA CARRERA | SOFBOL JOKALARIA

“Kopa irabazteko moduko taldea dugula uste dut”

Aurreko igandean jokatu zituzten denboraldiko azken bi partidak Kiroldi-OBK taldeko neskek eta hirugarren amaitu dute denboraldia. Rebeke Carrera jokalariairekin izan gara eta udako planak kontatu dizkigu oriotarrak.

Gustura al zarete hirugarren postuarekin?

Oso ongi hasi ginen, baina bukaera ez da horren ona izan. Halere, ezin dugu esan gustura ez gaudenik.

Baina ez da denboraldia hemen amaitzen, ezta?

Hala da. Uztailaren bigarren asteburuan Erreginaren kopan izango gara, Bartzelonan. Ohorezko mailako lau talderik onenek jokatu dugu Kopa eta lehen postuan gelditzen denak Europan jokatu du datorren denboraldian. Ilusioz entrenatuko dugu; Ohorezko Ligan jokatzen dugun taldeak izango garenez, irabaztea ez delako ezinezkoa.



Lesio bat izan du Rebekak udaberrian.

KARKARA

Zuri, zer moduz joan zaizu denboraldia?

Lesio bat izan dut belaunean eta ebakuntza egin zidaten.

Partida batzuk jokatu gabe egon naiz eta azkenekoan itzuli naiz zelaira ostera. Ramon Unanue ari zait erre-

Irailean Arizonara joatekotan naiz, Ingelesa pixka bat praktikatu eta bertako talde batekin entrenatu eta jokatzeraz

kuperazioarekin laguntzen. Oso estimagarria izan da bere laguntza.

Selekzioarekin izango omen zara udan...

Espainiako selekzioarekin nazioarteko txapelketa jokatuko dugu eta Estatu Batuak, Txina, Txina Taipei, Argentina eta Italia izango ditugu kontrario.

Abuztuko lehen asteburuan Europako Txapelketa jokatuko dugu, Pragan. Aurkari gogorrek izango ditugu.

Irailean, ordea, Estatu Batuetan izango naiz, Arizonan. Ingelesa praktikatu eta bertako talde batekin jokatuko dut.

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldi oroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 83 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hileria@tanatoriozarautz.net

AMILIBIA
ONTZIOLARI, S. L.

lari portuzko proiektu eta instalazioak

guztira mailako lehiaketa eta iruztin-entzadak

Olaskegaceta auzoa, 52
34 943 83 08 29
fax: 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

LURDES
BARRIO-ESM

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Tragoxka PUB

tragoxka@bbetvmail.com
Arizaga, 11 tel. 943 13 22 36

2004-5-10

RAMIRO
erreportaje digitalak

943 83 10 48



Azken egunak dituzte haurrek, motxila bizkarrean hartuta eskolako bidean.

KARKARA

GOIZEAN HASI ETA ARRATSALDERA ARTEKO FESTA IZANGO DA

Eskola Eguna ospatuko dute larunbatean

Ekainaren 18an, larunbatarekin, Eskola Eguna ospatuko dute aiarrek. Dagoeneko astebete besterik ez zaie geratzen udako oporrak hartzeko ikasleei eta ikasturte bukaerako festa egingo dute.

Duela 3 urtetik hona inoiz baino ekitaldi gehiago izaten ditu Lardizabal Eskolako Eguna eta, haurrek ez ezik, gurasoek ere egunaz gozatzeko aukera bikaina izaten dute.

GOIZEAN IKUSKIZUNAK

Goizean, eskolako haur eta gatzetxoek prestatu dituzten antzerki, kantu eta dantzak eskainiko dituzte herriko pilotalekuan jarriko duten ohol-tza gainean. Herriko artista

gazteenak ikusteko aukera aparta denontzat.

ERAKUSKETA

Ondoren, eskolan ikusgai

egongo dira ikasleek ikasturtean egindako eskulanak, ipuinak, marrazkiak... batzuk eraikuntza zaharrean eta besteak, berriz, berrian.

Horrez gain, Gabonetan, Inauterietan, ikasturtean egindako txangoetan eta ateratako argazkiak ere ikusi ahal izango dira, eskolako hormetan ipinita egongo baitira. Gainera, eraikuntza berri bide emanaldiak ere egongo dira eguerdira arte.

Oporrak hartzeko gogoz

Ekaina iristearekin batera eguna asko luzatzen da, eguraldi ona etorri, galtza motzak jantzi... Uda usaina du herriak dagoeneko. Baina ze luzea egiten den ekaina! Hori da ezin bukatua! Beste bi aste, oraindik aste bete... azterketak, ikasturte bukaerako notak... urduritasuna...

Baina bukatzeko gogoa ez dugu ikasleok bakarrik izaten, irakasleak ere bukatzeko gogoz daude. Udan deskonektatu eta irailean ikasturte berriari gogotsu ekiteko. Denok dugu bukatzeko gogoa.

Lasai, lasai! Zazpi lo egin eta hemen dugu eta uda!

BAZKARIA

Ekitaldiz beteriko goizaren ondoren, bazkaria egingo dute haur, guraso eta irakasleek herriko pilotalekuan. Bazkarian laguntzeko eta horren ostean ez da faltako trikitixa, kantu eta jokorik.

Urteroko moduan, ikasturteari amaiera bikaina emango diote larunbatean, eta datorren ostiralean hartuko dituzte oporrak.

DENETIK EGITEKO AUKERA IZANGO DA

Badatorrela, badatorrela azkenean, 2005eko uda

Negu luze eta gogorra izan da aurtengoa. Baina iritsi dira halako batean eguraldi ona, oporrak, festak... Topera aprobetxatu datozkigun egunak eta ea indar berriturik iristen garen irailera.

Hastear dago 2005eko uda, eta, berarekin batera, ekitaldi ugari ere bai. Aurten, aurreko urteetan bezalaxe, ondo pasatzeko gogo duenak bere nahiak asetzeko aukera ugari izango du.

Eguzkia zeruan, eskoletako atea ixteko aste bete besterik ez da falta, igerilekua ere martxan da... dena prest dago. Hona hemen udan egin daitezkeenetako batzuk.

KORUA

Landarbaso koruak kantu emanaldia eskainiko du ekainaren 26an, eguerdian, Aiako don Estebe elizan.

BIZIKLETA IRTEERA

Uztailaren 2an bizikleta ibilaldia egingo da Leitza eta Andoain artean. Bertara joateko 9 urte izan behar dira eta izen ematea Kultu Etxean egin behar da.

ZINEA PLAZAN

Uztailaren 29an, gaueko 10etan, zine emanaldia izango da ikusgai herriko enparantzan. Pantaila handian emango dute filmea eta horrela, aurreko urteetan hain arrakastatsua izan den ekitaldiaz



Aian ere ospatuko dituzte sanferminak

KARKARA

Uztailean udaleku irekiak egingo dira. Tenis, pilota, arrauna, igeriketa eta ingeleseko ikastaroak ere antolatu dira

gozatu ahal izango dute plazara bertaratzen diren zinezale guztiek.

ETA GEHIAGO...

Uztaila osoan udaleku irekiak egingo dira, urteroko moduan. Dagoeneko 70 haur baino gehiagok eman dute izena eta, beti bezala, hilabete osoa izango dute gaztetxoek lagun artean gauza asko egiteko: eskulanak, jolasak, ibilaldiak, errekan bainatu, sanferminak...

Aukera zabala da eta, gogoia izanda, bada zer aukeratu: tenis, pilota, arrauna, igeriketa eta ingeleseko ikastaroak ere antolatu dira.

LABUR

ARTEA

Jasone Irigoienen lanak Aian

Aiako Kultur Etxean ikusgai egongo dira Jasone Irigoien artista aiarraren pintura lanak, uztailaren 2tik 25era arte.

UDAKO ORDUTEGIA Kultur Etxeko ordutegi berria

Uda iristearekin batera, Kultur Etxeak ere ordutegia aldatuko du.

Horrela, uztailaren 4tik irailaren 2ra arte 08:00etatik 14:00ak arte edukiko ditu atea zabalik Kultur Etxeak. Irailetik aurrera neguko ordutegia hartuko du berriro.

ZINEA

Beldurrezko filma grabatzen

Aste honetan hasi dira oso osorik Aian egingo den film luzearen grabaketa lanak. "Desviados" izena izango du filmak, eta beldurrezkoa izango da. Jesus Ponce izango da zuzendaria.

Aiako hainbat leku erabiliko dituzte fimerako: Agorregiko burdinola eta ingurua, esate baterako, eta baita Bainen enpresak Errotaetxe baserrian duen platoa ere.

INAZIO MANTEROLA ETA SEMEAK

Marinero de Maristena

Urbegun ondo AIA - Tel. 943 13 10 09 - Fax 13 39 52
8 postakutxa - 20810 ORIO

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

AIAKO LEIHOA

Aiatik Arantzazura

Orain dela hogeita bat urte inguru Aiako gazte talde bati Aiatik Arantzazura oinez joatea bururatu zitzaion.

Baina meriturik handiena ez da hori, baizik eta ibilaldi hori, gaur egun, Aiako herrian ia obligaziozkoa bihurtu dela. Eguna nola joaten den kontatu nahi dut guztiek jakin dezaten. Goizeko bostetan izaten da; munduan ez dago irteera puntualgorik.

Gehienak elizako dorreko lehenengo kanpaiarekin abiatzen dira: Agustín *Galtxa* zenak jarritako ohitura eder bat. Altzuzelaitik Granada eta Etumetatik barrena Azpeitiko Landetara. Zortzi eta erdiak, bederatziak aldera gosaria (lehen borda batean egiten zen) eta zer gosari ederra! Mendian eguna pasatzeko

onena; bakoitzari arrautza pareta, urdaiazpiko bixerra, eta olio ondo hornitutako txorizo puska eder batzuk. Urteak pasa genituen gosari horrekin, baina ez omen zen *digestiboa* mendirako eta *más lait* jarri behar omen zen. Gaur egun kafesnea, kruasana eta horrelakoak ematen dizkigute. Ondoren Zumarragara, Pagotxetatik barrena eta, aipatzeko, tartean iturri bat *burni*

ura esanez ezagutzen duguna; ikaragarriko burni gustua du, makina bat aldiz esana da taldean *burnia behar badek, hartzak hauxe, hi!*

Zumarragatik Legazpira eta bazkaria. Eserita gustura, baina abiatu egin behar Udana aldera. Baziren tartean kopa ederra eta fariaskak piztuta abiatzen zirenak eta ez gara entzun gabeak *Hauek seko jota zeudek*. Udanan, zail-

tasunik handiena: Katabera delako aldapa. Ura eta jan pixka bat hartu eta goruntz. Hantetan babak, bazkariari buelta eman ezinak eta abar. Behin gaina egin ondoren, ibilaldiko parajerik zoragarriena, eta merezi du bertan pixka bat egotea.

Ondoren, goitik behera Arantzazura. Han, oraindik aipatu gabeko talde bat, egun guztian laguntzen ibiltzen den talde zoragarri bat, mediku eta guzti, gainera. Arantzazutik Aiara kotxez, eta, eguneko gorabeherak elkarri kontatzeko, Alkar Elkartean afaria. Eguneko ederrena, denak denekin eta denetik hitz egiten dugula.

Animatu, gonbidatuta zaude. Ekainaren 25ean.

IXIDRO LERTXUNDI

**Bakoitzari
arrautza pareta,
urdaiazpiko bi
xerra, eta olio ondo
hornitutako txorizo
puska eder batzuk
gosari**

**Ederrena,
denek denekin eta
denetik hitz egiten
dugula. Gonbidatuta
zaude,
ekainaren 25ean**

TXOKOAK ETA JENDEA



Mus txapelketako finala

Pasa den ekainaren 3an jokatu ziren XVIII. Mus txapelketako finalak. Bertan, denboraldi honetan kaskoko tabernetan jokatu diren hainbat kanporaketatan irabazle suertatu diren 16 bikoteek parte hartu zuten. Finala Jauregi tabernan egin zen eta hortxe dituzue Jose M. Lertxundi eta Jose M. Iburguren irabazleak Agustín Odriozola eta Felix Iburguren azpitxapeladunen ondoan. Zorionak denei!

*Teknopolisen adina
urte daramatza
Aitziber Agirrek
Orion, hiru.
Gehienei ezaguna
egingo zaizue
ETBko bi kateetan
ikusita. Izan ere,
Teknopolis saioa
aurkezten du
biokimikari
gasteiztar honek.
Telebistaz,
teknopolisez,
Gasteizez eta bere
herri berriaz,
Orioz, aritu gara
hizketan
Aitziberrekin.*


ENERITZ ODRIOZOLA

Gasteizkoa zara. Nola
etorritzen hona bizi-
tzera?

Maitasunak ekarri ninduen Oriora. Mutila hemengo da, eta, Bizkaian bizi ginela, Gipuzkoara lan egitera etortzeko aukera egokitu zitzaizgun. Horregatik, Orion bizi-tzea erabaki genuen. Baina garrantzitsua izan zen, baita ere, Amaia Urkola eta Arantxa Txintxurreta —unibertsi-tate-garaian nire ikaskide eta pisukide izandakoak— hemen bizi izatea, hori Oriora etortzeko laguntza garrantzitsua izan zen.

Gustura zaude Orion?

Bai, oso gustura. Herri atsegina da bizitzeko, oso. Hirietara ohituta egonda, uste nuen zaila egingo zitzaidalda hona moldatzea, baina bizitzeko tamaina egokia du Oriok. Oso hondartza eta itsaso zalea ez naizen arren, horrek ere, kostan egote horrek, bere alde positiboa ere badu, gainera. Nire aitaginarrebak hori esa-



KARKARA

AITZIBER AGIRRE | ZIENTZIA DIBULGATZAILEA

“Teknopolis enpresek
eta erakundeek
finantzatzen dute”

ten du behintzat, gasteiztarro asko gustatzen zaigula kosaldera etortzea.

Orioko txoko bat.

Goiko Kalea. Lehenengo aldiz herria bisitatu nuenetik izugarri polita iruditu zait beti alde zaharra. Eta asko harritzen naiz herriak altxor hori zein gutxi baloratzen duen ikusita, herritarrek ez dute bizitzarik egiten han goian. Niretzat Oriok daukan txokorik politenetakoa da, dudarik gabe.

Gasteiztik zer bilatzen duzu faltan?

Lagunak eta etxeak, jakina. Eta, horretaz gain, neurri txikiagoan bada ere, hiriburuak eskaintzen duen askatasun osoz ibiltzeko aukera. Aipatzekoa da, baita ere, Gasteizen hemengo aldean patxada ederrean ibil daitekeela bizikletaz eta askatasun izugarria ematen du horrek. Hemen, baina, zoazen lekura zoazela, aldapak daude.

Zerbait bilatu duzu Orion?

Euskaraz bizitzeko aukera. Gasteizen ere euskaraz bizi nintzen, baina etengabe borroka eginda. Hemen, berriz, erraz egiten da euskaraz.

Beno, eta arrai fresko-freskoa jateko aukera ere badut orain, mutila arrantzan aritzen denean. Hori luxua da niretzat.

Nolatan Teknopolisen?

Oraindik ez dut sinestu ere egiten nolatan sartu nintzen kontu horretan. Biokimikaria naiz, eta lehen laborategi batean egiten nuen lan. Doktoretza tesia bukatzen ari nintzela, Egunkarian notatxoak ikusi nuen: Elhuyar Fundazioak pertsona bat behar zuen biokimikaz edo genetikaz idazteko. Hura ikusita, begiak ireki zitzaizkidan, nire bizitzako lana zen! Ikerketa alorra gogorra da, pazientzia handia behar da, eta oso bide motela da; nekatzen hasita nengoen. Idaztea, ordea, asko gustatzen zait, eta, gainera, ondo ezagutzen nuen gaiaritze-

ko aukera nuen begien aurrean! Halaxe hasi nintzen Elhuyar aldizkarian. Gero, berriz ere, ikerketa utzi izanaz damututa pixka bat, unibertsitate-ra bueltatu nintzen lanera. Baina segituan egin nuen Elhuyarrera buelta; nirea benetan dibulgazioa zela sentitu nuen. Orduan hasi nintzen Teknopolisen. Lehenengo urtean erredakzio lanetan aritu nintzen eta geroko bitan aurkezten ere bai.

Zerk kentzen dizu denbora gehiago: aurkezteak edo erreportajeak egiteak.

Erreportajeak egiteak, jakina. Pantailaren atzean ikusten ez den lan asko dago. Baina ez naiz bakarrik aritzen erreportajeak egiten, lan horretan denera sei lagun aritzen gara: kazetariak batzuk, zientzian aritutakoak besteak. Tartean da, gainera, Orion bizi den neska bat, Arantxa Txintxurreta, biologoa bera.

Gustuko lana duzu?

Bai. Egia esan, denbora bada lan batean ez naizela hain gustura sentitu. Hasieran niretzat erronka handia izan zen, batez ere aurkezten hasi nintzenean. Oso lotsatia naiz, eta, horregatik, telebista aurrean jarri nahi nuen galdera egin zidatenean asko pentsatu nuen. Ausartu eta lotsak joan zitzaizkidan, gozatzen hasi nintzen. Baina aurkezle lanaz baino gehiago erredaktore lanaz gozatzen dut, asko ikasten delako horretan. Lanera joan aurretik badakit egunero ikasi egingo dudala, eta hori oso motibagarria da.

Euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten duzu. Nola sentitzen zara erosoago?

Diferentziaz, euskaraz ari nintzenean. Batetik, euskaraz bizi-tzen ohituta nagoelako eta, bestetik, nire gaiaraz, zientziaz, beti euskaraz ikasi dudalako. Tesia ere, nahiz eta gaztelaniaz aurkeztu nuen, lan taldean euskaraz egiten genuen.

Halako programek badute aurrera egiteko aukerarik?

Zaila da zientzia programak



Hirugarren denboraldia aurtengoa Aitziberrentzat Teknopolisen: lehenengo urtean erreportajeak egiten.

ikusgarri eta erakargarri egitea, baliabide ekonomiko handiak ez badituzu behintzat. Egunero saiatzen gara horretan; baina, egia esan, zaila da. Ikusleak ohituta gaude telebista aurrean nahiko pasiboa izaten, eta zientzia programa edo teknologia programa ikusteak esfortzu

minimoa eskatzen du, pixka bat bada ere pentsatu egin behar da.

Teknopolisek urteak bada-ramatza, ba...

Bai, orain arte denera zazpi denboraldi, eta zortzigarren bat ere, dena ongi badoa, izango du. Baina horrek ez du ezer



tajeak egiten aritu zen eta azken bi hauetan aurkezten ere aritu da.

ELHUYAR FUNDAZIOA

ere esan nahi.

Ikusleak ez dira falta, eta gure gogoia ere ez; baina, urtero-urtero programa finantzatzeko duten erakunde eta enpresen bila aritu behar izaten dugu, telebistaren ohiko programetatik eta gaietatik kanpo geratzen delako gurea. Ez da erraza.

Telebista bide onetik doa?

Telebista publikoak zientziaz, kulturaz eta halako gaiez ere aritu beharko luke. Funtzio hori bete beharko luke, behintzat. Gu urtero saiatzen gara halakoek iraun dezaten, baina zaila da. Telebistak bide oso arriskutsua hartu du, eta kostako da gero atzera egitea.

TXOKORIK POLITENA

“Lehenengo aldiz herria bisitatu nuenetik izugarri polita iruditu zait beti Goiko Kalea. Asko harritzen naiz herriak altxor hori zein gutxi baloratzen duen ikusita, herritarrek ez dute bizitzarik egiten han goian.”

HEMEN EUSKARA GEHIAGO

“Oriok euskaraz bizitzeko aukera eman dit. Gasteizen ere euskaraz bizi nintzen, baina etengabe borroka eginda. Hemen, berriz, erraz egiten da euskaraz.”

EGUNERO IKASTEN

“Batez ere erredaktore lanaz gozatzen hasi nintzen, asko ikasten delako horretan. Lanera joan aurretik badakit egunero ikasi egingo dudala, eta hori oso motibagarria da niretzat.”

EUSKARAZ HOBETO

“Diferentziaz, euskaraz aurkezten dudanean sentitzen naiz hobeto. Batetik, euskaraz bizitzen ohituta nagoelako eta, bestetik, nire gaiaz, zientziaz, beti euskaraz ikasi dudalako”

TELEBISTA AURREAN PASIBO

“Ohituta gaude telebista aurrean oso pasiboak izaten, eta zientzia programa edo teknologia programa ikustek ez esfortzu minimoa eskatzen du, pixka bat bada ere pentsatu egin behar da.”

DIRURIK EZ ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARAKO

“Programa egiteko dirua kanpoan bilatu behar izaten dugu, telebistaren ohiko programetatik eta gaietatik kanpo dagoelako gurea.”

TELEBISTAK BIDE TXARRA

“Gu urtero saiatzen gara halakoek iraun dezaten, baina zaila da. Telebistak bide oso arriskutsua hartu du, eta kostako da gero atzera egitea.”

ADARRETATIK HELDUTA

Argi laranja piztuta

Aurtengo antxoaren kostera joan zaigu. Emaizak denok ikusi ditugu, edo, hobe esanda, ez ditugu ikusi ere egin. Baina zer gertatu da, ba?

Azkeneko urteetan, zientzialari euskaldun, espainiar eta frantses ugari antxoaren biomasa aztertzen ari da. Kontuan hartuta urte beteko antxoa gai dela ugaltzeko, garrantzitsua da jakitea urtero adin horretako zenbat antxoa dagoen. Maiatzeko eta ekaineko ikerketen arabera, gomendatzen dute hurrengo urtean zenbat harrapatu daitekeen. Europako Komisioak ikerlariei txostenak jaso, eta abenduan egiten den Europako Arrantza Ministroen Kontseiluan proposamena luzatzen du eta ikerlariek bere txostentan jasotakoarekin bat dator. Ministroen esku dago onartu ala ez, eta azken urte hauetan ez dute onartu. Gainera, antxoa kuotaren banaketa 1986. urtetik erabakita dago: Espainiak %90 eta Frantziak %10. Baina 1990etik aurrera, Frantziako pelagikoak agertzean, konturatzen dira kuota hori ez zaiela nahikoa. Gehiago harrapatzen hasi eta istiluak sortu ziren itsasoan. Istiluak ekiditeko, estatuek Arca-chongo akordioa (inposaketa) sinatu zuten. Horrela, Espainiak bere kuotaren zati bat eman zion Frantziari; trukean, Espainiako alturako arrasteroentzat arrain gehiago lortuz. Hasieran



LEANDRO AZKUE
KOFRADIAKO IDAZKARIA

**Itsasoak, naturak,
argi laranja piztu
eta abisua
bidali digu.
Ea denok ondo
ulertzen dugun**

**Gutxienez, pauso
txiki bat eman da
eta Europak
bigarren seihilean
antxoa
harrapatzea
galarazi du**

Espainiak Frantziari ematen zizkion 5 milioi kilo antxoa, egun 9 milioi kilo bihurtu dira. Praktikan, akordio horri esker, pelagiko frantsesek guk adina harrapatu deza-

kete, ondoren gure merkatuan saltzeko. Baina Arca-chongo akordioa gauzatze-ko beharrezkoa da urtero Europak ezartzen duen antxoaren kuota handia izatea. Alegia, estatu espainiolak guri kendu eta gero frantsesei emateko. Eta hemen dago gakoa. Aurten ikerlariek 5 milioi kiloko kuota proposatzen zuten stocka egoera txarrean zegoelako, baina Espainiako eta Frantziako Arrantza Ministroek erabaki zuten 30 milioi kiloko kuota jartzea, nahiz eta ondo jakin itsasoan ez zegoela.

Azkenean, arrantzaleok hori dena salatu dugu, bai Arrantza Ministroaren eta baita Europako Komisioaren aurrean ere. Gutxienez pauso txiki bat eman da eta Europak bigarren seihilebetean antxoa arrantzazea galarazi du. Seguruenez, hurrengo urtean ere antxoaren arrantza debekatuko dute, aurreikuspenak txarrak baitira. Espero dezagun larrialdiko neurri horiek antxoa gure kostaldetik ez desagertzeko balio izatea. Baina gauza bat seguru dago: hemendik aurrera antxoaren arrantza (txosten zientifikoak, kuotaren kopurua, kuotaren gestioa, bi estatuen arteko trapeitxeoak, arrantza sistemak, arrantza esfortzuak, tasak, etab) ez da berdina izango. Itsasoak, naturak, argi laranja piztu digu, abisua bidali digu.

Ea denok ondo ulertzen dugun.

NIRE HONETAN

Labarraren horixka

Lehengo igandean Zumaian izan nintzen. Ireki berri den Algorriko interpretazio zentroan. Badirudi herri horretako labarrari garrantzia ematen hasi nahi dutela. Bai, egia da, garrantzia handia dute geruza fin horiek. Baina aspalditik, badira urte batzuk —asko— garrantzia dutela. Hala ere, behin ere ez da berandu inguruan dugun altxorrari erreparatzeko, eta bere balioa emateko.

Guk ere, hemen, Orion, badugu itsas labarra, eta baditugu hori-marroi koloreko geruzak. Zumaia-koak baina potoloagoak. Gainera, haiek adina garrantzia ez duten arren, badute bere balio geologikoa geurek ere. Agenda 21eko diagnostikorako txostenean hori ederki asko islatu zuten. Eman diezaio- gun, ba, merezi duena!

Horretarako, esfortzua egin behar da. Hasteko, herritarrok inguruan daukaguna nola sortua den, zein inguruneetan... jakin beharko dugu, benetan baloratzeko. Hau da, lehengo Orio nolakoa zen jakin beharko dugu. Eta gero, ingurune hori errespetatu beharko dugu; hau da, babestu. Hondartzan eta herrian sortu den obren epidemia labar horira ere zabaldu ez dadin.

ENERITZ ODRIOZOLA
KARKARAKIDEA

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

PARAFARMAZIA

dermatosmetika
hautu-erretardatzaileak
dieta-erretardatzaileak
sendabelarrak

Itzashatika

Eusko Gudari, 29 ORIO tel/fax: 943 13 47 34

Zer egitea gustatzen zaizu udako oporraldian ?



Maria Uranga
11 urte

Pozik nago eskolak bukatu eta udako oporrak ere iritsi direlako. Gainera, udalekuetara ere joango naiz aurtten, Goñira. Bestela, Orion ibiliko naiz, berriro ikastolara bueltatzeko eguna heldu arte. Baina, bitartean, aprobetxatu egingo dut: lagunekin hondartzara joango naiz eguraldi ona egiten badu.

“Lagunekin hondartzara joango naiz eguraldi ona egiten badu”



Aitor Atxega
9 urte

Badut gogoia ikasturtea bukatzeko! Zenbat eta gertuago egon oporrak, handiagoa da jai egiteko gogoia. Etxekolanak egin beharrak ez dit graziarik egiten, baina ahal dudan azkarren egiten saiatuko naiz, gero nahi dudan guztia egiteko. Lagunekin joango nintzateke hondartzara, ea gurasoek uzten didaten.

“Etxekolanak egin beharrak ez dit graziarik egiten, baina azkar egiten saiatuko naiz”



Andrea Velez
10 urte

Pena ematen dit ikasturtea amaitzeak, etxean bakarrik geratuta aspertu egiten naiz eta. Bestela, etxekolanak egingo ditut, edo hondartzara joan lagunekin edo gurasoekin. Beranduago Extremadurara joango naiz oporretara. Badut gogoia hara joateko, senideak berriro ikusi eta hango lagunekin jolasean aritzeko.

“Pena ematen dit ikasturtea bukatzeak, etxean bakarrik aspertu egiten naiz eta”



Ander Agirre
10 urte

Ez zait ikastolara joatea gustatzen eta gustura nago azken eguna aste honetan tokatzen delako. Udaran, lagunekin futbol partidak jokatzea, frontoira joatea, igerilekuan igeri egitea edota tenisean jokatzea gustatzen zait gehien.

Oporren onena da, egun osoa pasa dezakezula jolasean, eta etxeko lanik egin gabe.

“Oporren onena, egun osoa pasa dezakezula jolasean eta etxeko lanik egin gabe”

Aterpe
Plinxe, aultertoak,
plater kumbeltoak...
Telefonoa: 943 830333
Zabalketa: ORIO.

OLIDEN
karpetak
ORIO
Eusko Gudari, 2
Tfnos: 943 83 10 86

He aparategia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

TAXI AITOR
Erosu eramango zaituz nahi duzun lekura:
*aireportura
*medikuerenara edo errehabilitaziora
*sagarantegira
Erremolke zerbitzua badut: eguna, moioak, bizikletak.
Orion,
685 464 464

4. orrialdetik dator

Lotsagarria

Azken KARKARAN artikulua bat agertu zen Orioko hondartzako aparkaleku berriei buruz eta esaten zen oriotarrok 20 euroren truke txartela eskuratzeko aukera izango dugula udako denboraldian hondartzan autoa aparkatu ahal izateko. Orain arte doakoa izan da zerbitzu hori oriotarrontzat, kotxearen zerga ordainduta. Detaile garrantzitsu bat falta zitzaion, ordea, aipatutako artikuluari (KARKARAKOEK ez zekitelako, edota Udaleko norbaiti komentatzea *ahaztu* zitzaielako): txartel horiek ekainaren 20ra arte ez dira prest egongo, eta bitartean oriotarrok TAO ordaindu beharko dugu (4,5 euro goizean joanez gero, eta 3 euro arratsaldean joanez gero). TAO ordaindu ezean? Papertxo opari, 90 euroko isunarekin!

Barregarria iruditzen zait, gainera, Udalak herritarrok ordaindu behar izateari jarri dion arrazoa: *Herritarrek hondartzara joateko autoa gutxiago erabiltzea* dio artikulua. Logikoena da, behin 20 euroak ordainduta, txarteltxoari etekina atera nahi izatea eta, beraz, errentagarria izan dadin, hondartzara autoz joatea. Txarteltxoari probetxu ateratzeko, gutxienez 5 goizez (4,5 x 5 = 22,5 euro) edota 7 arratsaldean (3 x 7 = 21 euro) joan beharko dugu hondartzara autoz. Are barregarriagoa derizot azken urteetan gure hondartzara *Benidormizatzen* ari direnak orain beren burua naturzaletzat jotzea, herritarroi hondartzara kotxez

ez joatea eskatuz.

Pasa den igandean hondartzan izan nintzen, eta arrotz sentitu nintzen, ez nuen ingurunea ezagutu. Adreilu eta zementuzko 4 eraikin handi bezain itsusiz eta azken belaunaldiko farolez inguratua ikusi nuen nire burua, orain urte gutxi arte basatia bezain xarmagarria zen ingurune eder berebean. Orion ez ezik, beste edozein herritan nengoela esango nukeen.

Baina nork uste du benetan onura ekarriko diola herritarroi *Benidormizazio* horrek? Bigarren denboraldia jarraian futbol zelairik gabe geratuko diren futbolari eta zaletuek? Kanpinera urtero etortzen diren oriotarrek? Azken urte-etako obrekin nazkatutako surflari zein naturzaleek? Denok dakigu gutxi batzuei egingo diela onura, eta gutxi horiekizen eta abizenak dituzte, jakina.

Hori guztiagatik, TAO edota 20 euroko txartela ordaindu aurretik, bi aldiz pentsatzeko eskatuko nieke oriotarrei.

SHANTI ARRIETA

Pagoeta eguna

Pagoeta Egunean eguzkia lagun genuela igo ginen, erromeria gunea bazter utzita: Altzola aldeko paraje bakartiak, Santa Engrazi eta Izarraitzeko distira... distiratsu zegoen, baita ere, Aiako plaza jaitsieran, kolore, soinu, jende, umore eta amore ezberdinekin. Ausarten naiz esatera herri gutxitan sortuko dela horrelako giro jatorra, bai antolatzaileen aldetik, bai han bildu zirenen partetik ere.

Nahasketa handia izan zen, jende desberdina oso. Zein ondo moldatu ginen elkarrekin... Iraun dezala Pagoeta Egunak.

Betiko antolatzaileei, mila esker. Parte hartzaileei, berdin; ea denon artean lortzen dugun festa egun honek irautea, merezi du eta!

ELI IRURETA

Ez gaude ados!

Lerro hauen bidez adierazi nahi dut ez gaudela ados Udalak oriotarroi hondartzako aparkalekua ordaintzera behartu izanarekin. Herritarrok, zerga guztiak ordaindu ditugunean, gure hondartzara joateko ordaindu beharra onartezina da.

PAKO IMAZ

Eskerrak emanez

Denboraldia amaitzear dugunez, Autonomia ligako txapela eta Euskal Ligarako txartela eta, bestalde, Bigarren A mailako taldearen sendotzea lortu ditugu. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu bidean lagun izan ditugunei: Orioko Udala, taberna, enpresa eta nola ez, ondoan izan ditugun lagun guztiak.

Guztiei eskerrik asko.

ORIOKO ARETO FUTBOL TALDEA

Eskerrik asko

Arkupe astearen barruan izandako ekitaldietan parte hartu zuten eta laguntza eman ziguten guzti-guztiei gure eskerrik beroena eman nahi diegu.

ARKUPE ELKARTEA

IKASLEAK IDAZLE



SAIOA PERONA

DBH 4. MAILA

Udalekuak euskaraz

Urtero bezala, udairistean, udaleku askotako iragarkiak iristen zaizkigu: ingelesez, frantsesez, gazteleraz, euskara ikasteko edo ekintza jakinak burutzeko (eskalada, raftinga...). Bertara joanez gero, etxetik kanpo bi aste igarotzeko aukera dago, eta batzuetan, berriz, hilabete inguru. Udalekuetan lagun berriak egiten dira, esperientzia berriak bizi... Pertsona batzuk ez dira moldatzen hango girora, janaria txarra delako, inguruko jendearekin bat etortzen ez direlako... eta horrelako ama-zuloak etxera itzultzen dira egun gutxiren buruan. Udaleku batzuk ere badira euskararen erabilera bultzatzen dutenak eta horrelako ekimenak euskararentzat mesedegarri dira. Hala ere, aipatu beharra dago guzti hori ez dela muxutruk; beraz, joan nahi duenak, dirua aurreztu dezala.



HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Castron soka lepoan jarrita dudala iruditzen zait. Aspaldian kanpo nintzen, baina mundua ez da oraindik bukatu.”

JOSE LUIS KORTA


Entrenatzailea
Euskadi Irratia
2005/06/09

“Banderak irabaztea garesti dago, eta horregatik sekulako maila eman behar da. Horretara ailegatzeko lana erruz egin behar da. Gogorra da, baina mutilak motibatuta daude eta badakite hori dela garaipenak lortzeko bidea.”

JOKIN
SALSAMENDI

Entrenatzailea
Berria
2005/06/15

OSPAKIZUNA



Bost kiloko andesa

Sorpresa galanta hartu zuen Joxe Benito Britek aparejuan zeterren bost kiloko arraintzarra andesa zela ikusi zuenean. Ur berotako arraina da, eta ez omen da ohikoa gure inguruan. Maiazaren 21eko arratsaldean izan zen, barra inguruan, motorrekin kaxean zebilela. Hogei bat minutuz itxaron zuen arraina nekatu eta txalupara ekartzeko. Argazkia etxean ateratakoa da, Jokin eta Irene txikiekin, arraina zatitu eta labean sartu aurretik. Puskaterako izango zuten, behintzat.

ZORIONAK!

Dantzari
beteranoei

Oso festa polita jarri zuten plazan eta herri osoan adin guztietako dantzari oriotarrek, Arkupe elkarteak antolatutako emanaldian. Aspaldi jendaurrean dantzan egin gabekoak ziren dantzari gehienak, baina bikain aritu ziren, gogotsu eta alai.

Politena izan zen ikustea belaunaldi desberdinetako dantzariak elkarrekin: iraganeko eta etorkizuneko dantzariak festan bat eginda; kate luze baten begiak, bata bestearen ondoan.

Zorionak ematen dizkiegu parte hartu zuten guztiei eta, nola ez, ekitaldiaren antolatzaleei.

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Leiztrundi, 33 beheko ORIO.
Autobus parada ondoan

Zaragueta
Eskola **ORIO**
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

AUTOAK AUKERA ONEAN
AIA ORIO
Telefonoa: 943 13 04 38

BORDATXO
• Bokadilloak
• Marisko razio bereziak
Tel.: 943 13 30 14

Pelukeria eta estefika mistoa
ondo pasa festak!
Ezuke eta gizonakoa ilepaila da
ZASS
San Nikolas. 2 Telf: 943 83 31 70

TUZALA
kartela jokatzeko azarok
tel. 943 83 12 59

SOLOZABAL
autoeskola
Eusko Gudari, 30-1. ez
telef: 943 83 08 12

OROIMENAREN KUTXA



Herri guztietan daude gizon-emakume xebreak.

KARKARA

Herriko xebreak

Nire txikitako oroitzapenikalaienetakoa eta xebleenetakoa *Kiki* esaten zioten gizon batena da. Gu haurrak ginela, bera gizon heldua zen, betaurreko kristal oso lodiak zituen. Kalean ibiltzen zen, atzetik ume guztiak zituela, kantari: “Bat, bi, hiru ta lau, Kiki Bakalau...”. Gozatu egiten genuen harekin; festa bat zen guretzat haren atzetik hori kantatzen ibiltzea. Ez dakit besterik gizon harena, baina dakidan hori ez zait sekula ahaztuko. Herri txiki guztietan daude horrelako pertsonaiak, kalekoak, xebreak, ateraldi umoretsu eta bizimodu alaia dutenak, eta beren belaunaldiko herri-tarren memoria kolektiboan nolabait iltzatuta gelditzen direnak.

Gogoan dut batek nola esaten zuen, tabernan, esku

batekin pattar kopa ahoratu eta bestearekin sudurra tapatzen zuen bitartean: “Medikuak esan dit: alkohola ezta usaitu ere”. Gogoan dut, baita ere, beste batek behin tabernan sartu eta, frankismo betebetean, barra ondoan bi guardia zibil ikusita nola esan zuen: “Buenas noches a todos, menos a dos”. Gizajoak epe-lak hartu behar izan zituen ondoren kuartelilloan; baina haren ausardiak (edo inkontzientziak) balio izan zigun besteok ere gustora egingo egingo ez genuenaren pozal-ditxo sentitzeko.

Bazen beste bat, lanerako sekula grina handirik izan ez zuena. Herriatik kanpo bizi zen eta udara aldean etortzen zen bere jaioterrira bisitan. Behin, aspaldiko ezagun batekin topo egin eta hala galdetu zion bere

lanbideagatik (panaderoa zen) urte osoan hiru jai egun bakarrik zituenari: “Joño, aspaldiko, zer moduz habil?” eta, besteak: “Betiko moduan: lan egin eta bizi” eta, gure xebreak, barre txikia egin: “Hori erraza dek, ja-ja-ja, lan egin eta bizi...”

Horiek adibideak dira. Antzekoak ezagutuko ditu gutako edozeinek. Eta, gogoratzen ditugunean, irribarre bat marrazten zaigu aurpegian. Horixe da utzi diguten herentzia, oroitzapen goxo hori. Izan ere, jende klase hori, bere xebletasunean, oso jende aberatsa da, eta horrengatik uzten digute arrasto alaia. Bestelakoak ere herri guztietan daude, pobreak alegia, dirua besterik ez dutenak.

IÑAKI ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Aaron Salsamendi Zumeta, Orion, maiatzaren 20an.
- Salwa El Ghailani Zhiri, Orion, ekainaren 4an.


EZKONDUTAKOAK

- Roberto Sagasti Lakuntza eta Nerea Miralles Marketegi, Orion, ekainaren 11n.

HILDAKOAK

- Maria Aristi Azpeitia, Orion, ekainaren 2an. 93 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



ALBERTO LOIDI | PIANO TEKNIKARIA

“Ez daukat lanbide erraza, baina bete egiten nau”

15 urte daramatza Albertok pianoekin lanean, eta orain dela hiru jarri zuen pianoak zaharberritzeko tailerra Ubegungo industrialdean. Betidanik zekien altxorrek berreskuratu zitezkeela, eta orain hori lortzen ari da.

Zertan datza zuen lana?

Antzinako marka oneneko pianoak ekartzen ditugu Europako beste herri batzuetatik, eta zaharberritu egiten ditugu Jose Duranek eta biok. Jose egur lanaz eta begietatik sartzen den guztiaz arduratzen da (berniza, pintura, teklatuaren itxura) eta ni belarrietatik sartzen denaz (akustikarekin zerikusia duenez). Horrez gain, afinatu eta saldu ditugun zainketa egiten dut.

Merezi du zaharberritzea?

Zalantzarik gabe. Piano onak 1890etik munduko bigarren gerra hasi arte egin ziren. Behar adina diru eta denbora ematen zioten piano ona egiteari, eta duten soinua eta kalitatea ez da galdu. Gero hasi zen prezio-kalitatearen kontua, eta kalitatea gutxitu egin zen. Egun, 10 milioi kostatuko litzateke Steinway edo Bechstein berri bat; zaharberritua, berriz, horren erdian eros daiteke, eta egileak eman zion soinuari eusten dio.

Nor etortzen da zuengana?

Gehienetan, soinua hori bereztat nahi duena. Profesional batek pianoa ikusi baino lehen eseri eta nota batzuk jotzen ditu, belarriak tente dituela. *Horrelakorik ez dago gaur egun* esaten digute. Baina badira pianoaren estetikatik erosten dutenak ere. Edozein modutan, erosleak %90 ahoz ahoko gomendioagatik



Ordu mordo ematen ditu Albertok piano aurrean, kariñoz hartuta.

KARKARA

Profesional batek pianoa jotzen duenean, konturatzen naiz zergatik egiten dudan lan nekagarri hau

hurbiltzen zaigu, eta dezente enkarguz egiten dugu.

Lanbide zaila al da?

Beno, ondo aukeratu behar dira ekarritako pianoak, eta gero ordu mordo sartu. Eskulana eta prezisioa da guztia. Ehunka ordu sartzen ditugu

Ondo aukeratu behar dira ekarritako pianoak, eta ordu mordo sartu. Eskulana eta prezisioa da guztia

piano bat egokitzen, pazientzia handiz. Baina profesional on batek jotzen duenean, konturatzen naiz zergatik egiten dudan lan nekagarri hau. Pianoa, egin zen garaian, altxor handia zen, eta guk, gure lanarekin, horrela uzten dugu berriro.

Zein ezaugarri behar dira lan honetan aritzeko?

Belarri ona, soinua ondo kontrolatzeko; begi eta esku onak, milimetroko kontuak neurtzeko; pausoz pauso egiteko gaitasuna; eta gustuko lana izatea. Horiek beharrezkoak dira pianoak behar den soinua emango badu.

Pianoez maitemintzen zara?

Baten batekin oso harreman berezia izan dut. Hainbat ordu bera ukitzen, entzuten, zaintzen... eta egun batean eraman egiten dute. Egia da, hutsune bat gelditzen zait. Beste batzuen kasuan, alderantziz: konplikazioak baino ez dizkizu eman eta, nahiz eta azkenean dena ondo jarri, askatuta sentitzen naiz eraman dutenean!

Horrelako pianoa edukitzea elite kontua da?

Ez. Inbertsioa da batzuentzat, aurrezkoa besteentzat, lorpena bizitza osoan soinua horren bila ibili denarentzat... Danbolin Musika Eskolako haurrek ere jo dute hemengo Steinway pianoetan. Urte bukaerako kontzertua eman zuten hemen iaz eta, seguruen, inon aurkituko ez duten soinua entzun zuten.

Eta zu bezalako artisau asko al daude?

Pianoaren inguruko tradizioa dagoen herrietan, bai: Ingalaterran, Holandan edo Alemanian, esaterako. Baina hemen, ez. Bilbo, Cantabria, Palencia, Madril edo Iparraldetik etortzen zaigu jendea. Eta dena egiten jakin behar dugu, pianoa eraiki zuenak bezala. Jabetzen naiz ez dudala lanbide erraza aukeratu, baina bete egiten nau eta artea ikasteko prozesua ez da gelditzen, jakina!



Sanferminetan ligan

Aurreko KARKARA batean bezala, oraingoan ere, eskabetxerak ditugu protagonista. 1957. urtean egindako argazkian, berriz ere, Eugenio Azkueren eskabetxeriko langileak —gehienak eskabetxerak dira, ez denak— antxoaren sasoia egin ostean eta atunena hasi aurretik jai egunak izaten zituzten eta, horiek aprobetxatuz, eskurtsioa egin zuten.

Oraingoan Iruñeko sanferminetara joan ziren, *Sieltzeta* eskusoinu jole ezaguna lagun zutela. Festarako intentzioa bazuten, beraz, Oriotik abiatu aurretik.

Koadrila ederra bildu zen eta hainbeste emakume eder ikusita, aise hurbildu zitzairen inguruan zebilen mutil koadrila ere. Hala erakusten du fotografia honek, behintzat.

Tente daudenak, ezkerretik hasita: M. Frantziska

Larrañaga, M. Karmen Gurrutxaga, Maria Lertxundi, Antonia Lertxundi, Juanita Oteiza, Paulina Benegas, Juanita Makazaga, Inazia Etxezarreta eta Apolonia Guerra.

Makurtuta behean daudenak, berriz: M. Luisa Lizarraga, Inazita Isasti eta Balentin *Sieltzeta*.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
LUIS GOZATEGI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Madonia - Uma arropa

argine

v.lasnet.com/argine

o Gudariak, 9 - ORIO
Tel: 943 13 68 80

FISIOTERAPIA - Gaitortze Arloki eta Nalazio Minusoren
NUTRIZIONISTA - Gaitortze Arloki

sinergia investigación fisioterapia

ihai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 665 71 85 95

Gabon

TABERNA

plater karrikara eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

EUSKAL HERRIKO II. GRAFFITI LEHIAKETA

■ Teknika libreko graffiti lehiaketa 15 urtetik gorako gazteentzat, bakarka nahiz taldeka. Lanen proiektuak uztailearen 1a baino lehenago aurkeztu behar dira. Informazio gehiago www.topagunea.org helbidean.

PODOLOGOA

■ Aian, uztailearen 2an. Ordua hartzeko, Udaletxean eman izena. Tf: 943 13 11 44.

ODOL EMAILEAK

■ Orion, ekainaren 23an, 18:30etik 20:30era ambulategian.

IBILALDI GIDATUA

■ Ekainaren 18an. Elkargunea: Urdanetako plaza. Irteera: 9:30ean. Ibilbidea: Urdaneta, Altzola, Urdaneta. Itzulera: 13:30ean.

KONTZENTRAZIOAK

■ Ekainaren 24an, Etxeratek deituta, kontzentrazio isila, 20:00ean plazan.
■ Ekainaren 28an, 23:30ean plazan.

BISITA KULTURALA

■ Orion, ekainaren 18an. Irteera: 17:00etan. Ondare historikoa ezagutzera bideratutako bisita. Ordu eta erdiko iraupena du eta 2 euroko prezioa.



Antzerki emanaldia

Ekainaren 17an antzerki tailerrean aritu direnen emanaldia izango da Kultur Etxean gaueko 22:00etan.

Antzezlan idatziak eta inprobisazioak landu dituzte ikasturte honetan Patxi Santamaria aktore zarauzitarra irakasle dutela. Asteartero bildu dira azarotik hasita Kosta Tailerrean. Egindako lan batzuketarako dituzte zortzi oriotarrek.

SORGIN GAUA

■ Orion, ekainaren 23an. 21:00etan erromeria eta, ondoren, dantzaldia suaren inguruan. Ikastola aurrean.

IBAIA ETA SAGARDOA

■ Orion, ekainaren 19an. 17:30etik 20:30era. Oria ibaian zehar kanoan ibili eta, ondoren, Aginaga sagardotegian sagardo

dastaketa. Irteera: Turismo Bulegoa. Prezioa: 6 euro. 12 urtetik beherakoak doan.

NATUR TALDEA

■ Herrikoek irteera egingo dute ekainaren 26an, igandearekin, Algorriko itsas labarrera, Zumaian. Interesatuak egun horretan azaldu daitezke, 10:00etan plazara.

BABES LEKUA

■ Eskulan ikastaro zabala irailetik aurrera: errusiar portzelana, pergaminioa, dekorazioa eskaiolan, gauzen berreskurapenerako teknikak... Interesatuak Zaharren Babes Lekuan eman behar dute izena.

ERROMERIA

■ Uda aurreko azken erromeria Aristerrazun: Etxabe anaiak hilaren 19an.

OSTARGI ERAKUSKETA

■ Ostargiko lagunek urtean zehar egindako lanen erakusketa Orioko Kultur Etxean. Ekainaren 24, 25, 26, 29, 30 eta uztailearen 1, 2 eta 3an egongo da ikusgai. 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

MUSIKA ESKOLA

■ 2005-2006 ikasturteko matrikula egiteko: ikasle zaharrek ekainaren 21etik uztailearen 6ra; eta ikasle berriek irailaren 1etik 6ra. Edozein galdera egiteko, jo Musika Eskolara bertara (943 83 37 27 telefonoa).

TURISMO BULEGOA

■ Ordutegi berria. Ekainaren 1etik irailaren 11 arte, egunero zabalik.
■ Astelehenetik larunbatera: 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.
■ Igandean: 10:00etatik 14:00etara.

ITSASOA

EKAINA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
18	14:19 eta	08:02 eta 20:21	
19	02:41 eta 15:08	08:52 eta 21:12	
20	03:32 eta 15:55	09:37 eta 22:01	
21	04:21 eta 16:41	10:25 eta 22:50	
22	05:10 eta 17:29	11:12 eta 23:40	
23	05:59 eta 18:17	11:59 eta	
24	06:50 eta 19:08	01:22 eta 12:48	
25	07:42 eta 20:02	02:19 eta 13:39	
26	08:36 eta 20:57	02:15 eta 14:33	
27	09:32 eta 21:55	03:10 eta 15:28	
28	10:32 eta 22:56	04:07 eta 16:28	
29	11:36 eta 23:58	05:08 eta 17:32	
30	12:41 eta	06:10 eta 18:38	
01	01:06 eta 13:44	07:14 eta 19:43	
02	02:10 eta 14:42	08:10 eta 20:44	

ZAINTZAKO BOTIKAK



EKAINA

■ 18an eta 19an, Olaizola.
■ 20an, Uranga.
■ 21ean, Azaldegi.
■ 22an, Zulaika.
■ 23an, Iriarte.
■ 24an, Olaizola.
■ 25etik 27ra, Barrenetxea.
■ 28an, Zulaika.
■ 29an, Uranga.
■ 30ean, Olaizola.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

Barrenetxea: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

Olaizola: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

Uranga: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

Laster... Baraka

taberna

Gosariak, pintxoak, kaxuelitak,
plater konbinatuak.

gauetan...
musika eta kopak!

Astelehenetik ostiralera
goizeko 8etatik gaueko 2etara

Larunbat eta igandietan
goizeko 9:30etatik gaueko 3:30etara

Aita Lertxundi 23



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**



Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako Sistemak

Erosteko eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu. Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza elektronikorako sistemak nola aplikatu ditzakezun azalduko dizugu eta nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.

Sustetzaileak :



Gipuzkoa Berrikuntza
Diputazioa, Txartu eta Ciberketa



Aholketailea :



Miramón
Enpresa Digitala

Urola Kostaldea-Urola Erdia

Ekainak 21

ZARAUZ

Oteitza Lizeo Politeknikoa
(Antoniano)

Ordutegia: 18:00 - 20:00

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com